


EAEko BPGd-ak % 5,5 egin du aurrera, 2021. urtean

BPGd-aren hazkuntza bizkortu egin da 2021eko laugarren hiruhilekoan, eta elkarren ondoko hiruhilekoen arteko tasa positiboen seigarren hiruhilekoa da

EAEko **2021eko BPGd-aren** balantzea, kontuan hartuta haren bereizgarrietako bat dela jarduera ekonomikoa pixkanaka suspertzen ari dela, % 5,5eko hazkuntzarekin itxi da, 2020. urtearekin alderatuta, Eustatek eginiko Hiruhilekoko Kontuen Aurrerapenaren estimazioen arabera.



Eskaintzaren aldetik, Industria eta Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa izan dira, aurreko urtearekin alderatuta, balio erantsian aurrerapen handienak izan dituzten sektoreak. Kanpo-eskariaren ekarpena positiboa izango da 2021. urtean, oro har. Barne-eskaria dela eta, aurreko urtearekin alderatuta bilakaerarik onuragarriena Kapital finkoaren eraketa gordinari (inbertsioa) dagokio.

2021ean, enpleguak –denbora osoko baliokidetzako lanpostu gisa neurtuta– % 5,2 egin du gora, aurreko urtearekin alderatuta, zeinak jardueraren eta enpleguaren erortzea izan baitu bereizgarri. Nabarmendu behar da Kontuen Sistema Europarrak (KSE) lanpostuaren definiziotik kanpo uzten dituela aldi baterako lan egiten ez duten baina

beren lanpostuarekin –bermearekin edo berriro lanean hasteko datari buruzko akordioarekin, esaterako ABEEEn kasua– lotura formala duten pertsonak.

2021eko laugarren hiruhilekoa dela eta, urteko aurreko hiruhilekoarekin alderatuta zenbatetsitako BPGd-aren % 1,2ko aurrerapenaren ondoren, % 4,5eko hazkuntza bat izan da, 2020ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta.

Enpleguak, denbora osoko baliokidetzako lanpostu gisa neurtuta, % 4,3 egin du gora, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Hiruhilekoen arteko terminoetan, bestalde, enpleguak % 0,8 egin du gora 2021eko laugarren hiruhilekoan.

Datorren **martxoaren 4an**, Eustatek BPGd-aren eta enpleguaren estimazio bereiziak argitaratuko ditu 2021eko laugarren hiruhilekoko Hiruhileroko Kontuetan, aurrerapen hau prestatzeko unean eskuragarri ez dagoen informazio koiunturala sartu ondoren.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62